

Larrialdi deietarako sermoiak

GIPUZKOAKO BERTSO TXAPELKETA FINALA

DONOSTIAKO ILUNBE, ABENDUAK 19

Sailkapena:

Beñat Gaztelumendik (1012 puntu) irabazi zuen txapela, Alaia Martinekin batera (993) buruz buru aritu ondoren. Segidan gelditu ziren Agin Laburu (614), Iñaki Apalategi (603,5), Unai Agirre (595,5), Oihana Iguaran (594), Jon Maia (586) eta Arkaitz Oartzabal *Xamoa* (571).



Kepa Matxain Iztueta

@kmatxain



ALBERTO ELOSEGI, BERTSOZALE ELKARTEA

Desesperatuta, Inesen telefono zenbakia markatu nuen.

– Aizan, behar haunat.

Nire porrota onartzea zen hura, baina ez neukan beste irtenbiderik. Azken aukera nuen neure buruari frogatzeko gai nintzela nire irizpide hutsez kronika duin bat egiteko, aski garatu nuela *bertso-critic* sena, eta, apropos, Inesengandik aparte eseri nintzen. Alferrik. Paper zuriaren aurrean oro zen zalantza.

– Nola laburtuko huke Ilunbeko finala?

Bazekien deituko niola.

– Alaia Martin eta Beñat Gaztelumendi koska bat gainetik, merezita pasa zitan buruz burukora. Gainontzeak? Aritu izan dituk hobeto.

– Ados, apuntatuta. Eta, oro har, saioak eragindako gogoetarik?

Isilune labur bat egin zuen.

– Bertsolaritza kanona aldatzen ari duk, onerako zein txarrerako –berezikiki kezkatuta nagok poetikotzat jota-edo oso goitik puntuatzen den hizkera aski *kitsch* batekin, baina horrek beste kapitulu bat merezi dik-. Egia esango diat: buruz burukoan faltan sumatua beste erregistro batean –“lurtarra-goan”, nolabait esatearren– kantatu ohi duen baten bat. Ez ditiat Gaztelumendi

eta Martin zaku berean sartzen, baina ukaezina duk estilo fin-sentimentalago baterantz jo ohi dutela. Nagok, finalari kolore gehiago emango ziola, esaterako, Unai Agirre edo Agin Laburu puntara ailegatzeak, oso bestelako kantakera duten bi aipatzeagatik. Behin hori esanda, eta buruz bururako nortzuk sailkatu ziren ikusirik, argi zaukat: Gaztelumendik merezita jantzi zian txapela. Goitik beherako saioa egin zian.

Koloreak antzematen zitzaizkion.

– Baita Alaia Martinek ere, Ines. Guk ezin dinagu objektiboak izan, añorgatarrak gaitun.

– Hara, ezinezkoa duk, orain, añorgatarra eta objektiboa izatea. Faborez, aitortu idak seriotasun pixka bat. Esaten badiat Beñatek merezi zuela, Beñatek merezi zuela pentsatzen dudalako duk. Erdipurdiko lan bakarra egin zian: hain justu ere, buruz burukoan Alaiarekin berarekin puntuka egindako saioa.

– Alaiak ere horixe izan zinan erdi-purdiko lan bakarra, ala?

– Bai eta ez. Kontu batekin bueltaka nabilek. Ez zakiat epaileek ze irizpide dituzten bertso bat puntuatzerakoan, baina funtsezko gauza bati erreparatu behar lioketek: ofizioetan bertsolariak pertsonaiean eta egoeran egoki sartzea

lortu duen ala ez. Pertsonaiean sartzeak esan nahi dik, ahal den neurrian, ahalegintzea hark erabiliko lituzkeen hitzak erabiltzen, haren talaiara jaisten –bai, jaitsi, oso goitik ibiltzeko joera zagok eta-. Egoeran sartzeak esan nahi dik gaiaren testuingurutik kantatzea, eta ez kanpotik, gaiaz era askean filosofatuz. Alaiak, sarri, Alaiatik kantatze-ra jo zian pertsonaiatik baino gehiago. Nabarmena egin zitzaidan zortziko handiko Down sindromedunaren pape-rean –a ze marroia gaia, bide batez– eta buruz buruko seiko motzeko lehen bi bertsoetan, kutxazainarenetik aritu zenean. Batzuetan izaten duk aukera pertsonaren oso antzeko pertsonaia erai-kitzeko, eta halakoetan *non problem*. Baina beste batzuetan esfortzu txiki bat egin beharra zagok. Beñati berari ere inoiz antzeman izan zioat pertsonatik kantatzeko joera hori. Finalean, ordea, finago ibili zuan, nire uste makalean.

– Hori dun diskurtsoa, Ines. Kutxako ordezkaria ematen dun.

– Joder, a ze tipoa.

– Txistu jo al hionan?

– Hasieran ez, baina sermoiarekin hasitakoan... Hik?

– Komunean harrapatu nindinan. ■